

## **Udako Euskal Unibertsitatea**

*Euskaldunon Egunkaria, 1994-08-02: 2.*

Gure herriko kultur bidexka aurrera doa. Zorionez, ezagunak diren izenez gain agertzen zaizkigu urtean behin, udaldian, sasoiko fruituaren gisa, gure kultura zabalaren eta zientziaren mezulari berrienak Udako Euskal Unibertsitatean, eta bertan Lapurdi eta Nafarroa. Aurtengoan irabaziak ere eman ditu dirugabeko banku honek, ez milioika aberastuz baina bai ehunka indartuak, igaz baino 200 gehiago izan baitira, irakasle eta ikasle kontuan hartuta, eta nafarrak dira aurten gehien hazi direnak. Ondo dakigu Autonomiaren mugak izan direla ofizialki bi herrialde hauek gabe utzi gaituztenak. Euskadi ofizialki lanean jarri duen EHU, Ikastola eta Euskal Eskola, Ertzaina, Komunikabideak, eta beste zenbat ahalegin, eta falta zaizkigun Nafarroa eta Iparraldea beste esku eta gogoetan utziak bizi direla. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren bereizkuntza ederrak kontuan hartuz erakunde ofizialetan hutsa nabarmentzen bada, badugu gure ofizialak eta politikoak ez diren erakundeak betetzen dituen kultur langile, askotan isilik, garrasi ere egiterik badute noizbehinka, eta esan Euskadi instituzioa burutu gabe dagoela oraindik, egitura hau zaila dela osatzen, baina aurrera doala, eta denon artean bakarrik osatuko dugula Euskal Mundua ofizialki Euskal Herrian kokatzea.